



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko urriaren 7a

98. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Vinsak azken urtean erositako etxebizitzetako buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Vinsak bere lana egiteko gaur egun dituen bulegoetako eta lokalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, apopilo-etxeetan bizi diren pertsonak gizarte-alokairuko pisuetara eramateko planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Gazte Behatokiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Andelosen 2005etik 2009ra bitartean eginiko jarduketako nagusiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Andelosko aztarnategi arkeologikoaren musealizazioarako plan zuzendariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, enpresa publikoetako plantillari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, gasolioa erosteagatik nekazarietako edo abeltzainetako jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa berezia egiteko eskabidea Internet bidez aurkeztu beharriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (19. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Vinsak azken urtean erositako etxebizitzetarako buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Vinsak azken urtean erositako etxebizitzetarako buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Vinsak erositako etxebizitza bukatuei buruz. Hona Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

• 2009ko urtarrilaren 1etik gaur arte, Viviendas de Navarra, S.A.k 64 etxebizitza bukatu erosi ditu, jabe desberdinenak. Erosketa horiek etxebizitza

babestuetarako legez baimendutako gehienekoak aplikatuta atera diren prezioetan erosi dira, hau da aplikatzekoak diren modulu indardunei jarraituz.

• Erosketa horiek egiteko, Vinsak Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak finkatutako estrategia aplikatu du; hain zuzen ere lehentasunezko erosketa-eskubideaz baliatzea etxebizitza babestuen salmentan, bereziki Iruñerrian, eta etxebizitza desegokia den kasuetan konponbidea ematea. Horren guztiaren xedea da erabilgaitako etxebizitzak erostea, etxebizitzaren arloko premiak asetzeko, eta hain zuzen ere premia hori egiaztaturik geratu da, berriki egin dugun deialdi publikoan pertsona ugari geratu baita itxaron zerrendan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko uztailaren 20an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

Galdera, Vinsak bere lana egiteko gaur egun dituen bulegoei eta lokalei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Vinsak bere lana egiteko gaur egun dituen bulegoei eta lokalei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Vinsak bere jarduerarako erabiltzen dituen bulego eta lokalei buruz. Hona Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Zenbat bulego eta lokal ditu une honetan Vinsak bere lana egiteko? Horietako bakoitzaren kokalekua eta neurriak.

– 3 lokal dauzka; honakoak, hain zuzen:

- Sarasate pasealekua 38, 1. eta 2. solairuak. Iruña. Azalera: Sarasate pasealekua 38, 1. solairua: 80,74 m². Sarasate pasealekua 38, 2. solairua: 533,23 m².

- Eneko Aritza kalea, 24, atzealdea. Azalera: 304,49 m².

- Juan Antonio Fernández kalea, 36- 38- 40. Tuter. Azalera: 40 m².

2.- Lokal horiek enpresarenak dira ala Nafarroako Gobernuarenak? Ba al du lokalik errentan hartuta? Zehaztu lokal horietako bakoitzaren erregimena.

– Sarasate pasealekua 38, 2. solairua: Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa da eta Vinsari lagata dago.

– Sarasate pasealekua 38, 1. solairua: alokatuta dago.

– Juan Antonio Fernández kalea, 36- 38- 40, Tuter: alokatuta dago.

– Eneko Aritza kalea, 24, atzealdea: alokatuta dago.

3.- Vinsak errentan dituen lokalei dagokienez, zein da enpresak lokal horietako bakoitzarengatik ordaintzen duen urteko kuota?

– Sarasate pasealekua 38, 1. solairua: alokatuta dago. Urtean, 17.112 euro ordaintzen dira.

– Tuterako bulegoa: alokatuta dago. Urtean, 5.940 euro ordaintzen dira.

– Eneko Aritza kalea, 24, atzealdea: urtean 63.600 euro.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko uztailaren 20an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

Galdera, apopilo-etxeetan bizi diren pertsonak gizarte-alokairuko pisuetara eramateko planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du apopilo-etxeetan bizi diren pertsonak gizarte-alokairuko pisuetara eramateko planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 12ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du apopilo-etxeetan bizi diren pertsonentzako pilotatze-esperientzia bat abian jartzeari buruz (PES 191-09). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Lehenbizi, eta adimen osasunaren arloko organo eskudunen eta gizarte zerbitzuen arloko organo eskudunen arteko lankidetzari dagokionez, hain zuzen ere galderan aipatzen diren pertsonen laguntza ematearren, gogorarazi behar dugu Nafarroako Gobernuaren 2005eko urtarrilaren 24ko erabakiaren bitartez Adimeneko Nahaste Larriak dituzten Pertsonen Laguntzeko Zuzendaritza Batzordea sortu zela, bai eta aurreko batzordearen menpeko batzorde tekniko bat ere.

Organo horien eginkizuna da hain zuzen ere, arlo horietan –besteak beste aztergai dugunean– eskudunak diren departamentuen arteko lankidetzatza. Horrenbestez, organo horien bitartez artikulatza

tu beharko litzateke pertsona horiei laguntza emateko beharrezkoa den lankidetzatza.

Galderan aipatzen den programa esperimentala abian jartzeari dagokionez, adierazi behar dugu hura 2009ko udan jarriko dela abian.

Izan ere, behar diren giza baliabideei dagokionez, kontuan hartu behar da programa esperimentala izateak berarekin dakarrela programak berak emanen dizkigula langileria dela-eta izan daitezkeen premiei buruzko jarraibideak.

Hasiera batean, gizarte laguntzerako, lanaldi erdian jardunen duen gizarte hezitzaile bat jarriko da. Pisurako kanpoko esku-hartzea erabiltzaileen autonomia-mailaren eta taldearen kohesioaren arabera izanen da, eta sortzen diren beharren arabera egokitzen joanen da.

Azkenik, pertsona horien gizarte laguntzeari dagokionez, esan behar dugu Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak nahi duela, hasiera batean, Asociación Navarra Sin Fronteras elkarteari esleitzea eginkizun horren garapena (antzeko eginkizunetan diharduelako), Gizarte Gaietako eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiarekin izenpetua duen laguntza teknikoko kontratua zabalduz, Nafarroako antzinako umezurtz-etxetik heldu diren pertsona helduekin inguruneko irekian jarduteko.

Geroan, behin erkidegoan gizarteratzeko taldeak ezartzen direnean, horietan izanen dira eginkizun hori beren gain hartu beharko dutenak.

Iruñean, 2009ko uztailaren 1ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Gazte Behatokiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorr jaunak galdera egin du Gazte Behatokiari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Gazte Behatokiari buruz (PES-193-09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gazteriaren Institutua 2007ko irailan sortu zen, eta harrezkero Nafarroako Foru Komunitateko gazteen aldeko politika integral bat definitzeko lan egin du, hain zuzen ere Nafarroako gazteriaren sustapena, emantzipazioa eta parte-hartzea hobetzeko. Zeharkakotasuna, gazteen parte-hartzea eta lankidetzaren dira haren oinarriko printzipioetako batzuk.

Testuinguru horretan, gazteei buruzko ezagupena hobetzea eta haien premiei, erronkei eta eskakizunei buruzko informazioa eta azterketa osoak eta zehatzak edukitzea beharrezko baldintzak dira gobernu-ekintza eraginkor eta koordinatua edukitzeko, hain zuzen ere gazteen aukerak areagotze aldera.

Hori dela eta, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak komenigarritzat jotzen du Nafarroako Gazteriaren Behatokia sortzea, zertarako eta modu iraunkorrean behatzeko eta aztertzeko Nafarroako gazteen egoera eta beharrak, hain zuzen ere haiei zuzendutako politika publikoak egokitu ahal izateko.

Eta horrexegatik, hori izanen da etorkizuneko Gazteriari buruzko Foru Legean landuko diren alderdietako bat. Lege horren prestaketa eta gero onespena da departamentu honek gazteriaren arloan daukan erronka nagusia da. Foru lege horren bitartez, izan ere, beste helburu batzuen artean, Nafarroako Gazteriaren Behatokia sortuko da.

Horri dagokionez, Gazteriari buruzko Foru Legearen oinarriko dokumentua, departamentu honek landutakoa, hemendik gutxira aurkeztuko da jendaurrean. Aztergai dugun gaiari dagokionez, honakoa dio testu horren 11. oinarria:

“Nafarroako Gazteriaren Behatokia sortuko da, Nafarroako Gazteriaren Institutuan sartutako prosekzioarako organo tekniko moduan. Behatoki horrek, Nafarroako gazteen egoerari buruzko alderdiak erakusten dituzten adierazle ebaluazioaren bitartez, behar diren ezagupenak emanen dizkio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari errealitate soziala hobetzera zuzendutako neurri berriak egoki hartzeko.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, Nafarroako Gazteriaren Behatokiaren bitartez, sustatuko du analisiak eta azterlanak egitea eta behar diren tresnak ezarriko ditu gazteen errealitateari buruzko informazioa eta ezagupen jarraitu, fidagarri eta eguneratuak lortzeko.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, Nafarroako Gazteen Behatokiaren bitartez, lege honetan aurreikusitako jarduerak garatzeko berariazko balibide, zerbitzu eta prozeduren eraginkortasuna eta kalitatea ebaluatuko ditu.

Egindako analisisien eta ebaluazioen emaitzak aintzat hartuko dira gazteriaren arloan hurrenez hurren gauzatuko diren jarduerak prestatzeko.

Haren eraketa eta eginkizunak erregelamendu bidez zehaztuko dira.”

Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Gazteriaren Behatokiaren sorrera aipatutako legearen onespenera bidez gauzatuko bada ere, Nafarroako Gazteriaren Institutua behatoki hori definitu aurreko azterlanak eta analisiak egiten aritu da.

Halaber, erakunde autonomo horren bitartez, zenbait ikerketa eta argitalpen egin dira eta bestelako materialak ere sortu dira.

Zehazki, ekitaldi honetan zehar, Nafarroako Gazteriaren Institutuak hurrengo ekintzetan aurrera egin nahi du:

- Nafarroako Gazteriaren Behatokiaren batzordearen behin-behineko eratzea. Batzorde hori Nafarroako gazteriaren arloko ikerketaren eta analisisaren arloan eskumenak dituzten entitateek osatuko dute. Horrela, erakundearen arteko lantalde bat osatuko da. Lantalde hori lanean hasiko da gazteen

populazioa behatzen, betiere lankidetzeta eta baliabideen optimizazioa oinarri hartuta.

- Datuak bildu, aztertu, behatu eta ustiatzeko barneko sistemak sortzea. Lan egiteko adierazleak eta metodoak definitzea.

- Ikerketak eta argitalpenak prestatzea.

Jarduera horiek Nafarroako Gazteriaren Institutua bera garatzen aritu da. Horrenbestez, aurrekontuetako aurreikuspena nahikoa izaten ari da haiei aurre egiteko.

Iruñean, 2009ko uztailaren 20an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Andelosen 2005etik 2009ra bitartean eginiko jarduketa nagusiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Andelosen 2005etik 2009ra bitartean eginiko jarduketa nagusiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 26ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du 2005-2009 epean Andelosko aztarnategi arkeologikoan egingakoari buruz (PES-207). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Galderan aipatutako epean eginiko jarduera guztiak Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Andelosko Plan Zuzendarian egiten ari denaren barruan sartzen dira.

Plan hori, Gabinete Trama enpresak 1997an erredaktatua, jarraibidea izan da aztarnategia hobetzea ekarri duten lan ildoak garatzeko, hari interes turistikoko eremu gisa balioa emateko, haren finkatze arkeologikoa lortzeko eta hura ikuspuntu didaktikotik, ikerketaren ikuspuntutik eta ikuspuntu turistikotik sustatzeko. Ongi ulertu behar da plan hori oinarritzko proiektu gisa pentsatu eta interpretatu dela. Ez hitzez hitz aplikatzeko, baizik eta haren oinarritzko ildoak garatzeko, aurrekontu-

egoeraren arabera eta haren faseen lehentasunen arabera.

Galderaren testuan aipatzen den aldian, bat baino gehiago dira urtetik urtera finkatzen joan diren jarduerak. Horien artean, nabarmendu behar dira aztarnategi arkeologikoaren eta museo bihurtutako instalazioen kudeaketa bera; aztarnategia maila desberdinetan sustatzea; alde didaktikoan, talde eta erakundeentzat, ikastetxeentzat, unibertsitateentzat eta kongresuetara etorritako jendearentzat bisitaldiak antolatzea... Halaber, arlo turistikotik Turismoko Marketinaren Plan Integralean sarturiko turismo kulturalako produktu gisa garatu da. Horrek berarekin ekarri du aztarnategia presente egotea eta sustatzea azoka, aurkezpen, prentsa ohar, webgune, publizitate ekintza, buletin elektronikoa eta abarretan.

Halaber, aldi berean, honako lanak egin dira: aztarnategiko mantentze-lanak; aztarna arkeologikoak finkatzeko lanak; aztarnategiko memoria arkeologikoak aztertu eta interpretatu; argibideak emateko esku-orriak eta bestelako euskarriak prestatu; egitura nagusiak egokitu eta museo bihurtu eta abar.

Lan horiek guztiak Nafarroako Gobernuko zerbitzuen parte-hartze koordinatuaren bitartez gauzatu dira; lan horietako asko, Nafarroako Gobernuko langileekin edo aztarnategia bera kudeatzen duen kontratuko langileekin egin dira. Hori dela eta, nekeza da ekonomikoki zenbatetsea kudeaketa integral hori, zeinak eremu eta garapen hain desberdinak hartzen baititu.

Lan horretaz gainera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak beste lan batzuk egin ditu, zure galderaren asmoarekin eta enuntziatu zehatzarekin lotura handia-

goa dutenak. Honakoak daude jarduera horien artean:

Aztarnategia kudeatzea.

2005. Andelosko museo arkeologikoa eta instalazioak D mailako zaindari baten aldi baterako kontratazioaren bidez kudeatzen dira. Zaindari hori da tokia zabaltzeaz eta mantentzeaz arduratzen dena.

2006. Runa Gestión de Patrimonio Histórico enpresari eginiko adjudikazioa, abuztuaren 30eko 329/2005 Ebazpenaren bitartez. Zenbatekoa: 12.900 euro. Pentsan iragarritako prozedura negoziatua. Kudeaketarako kontratua enpresa berari luzatu zaio ordutik hona.

2007. Runa Gestión de Patrimonio Histórico enpresari eginiko adjudikazioa. Zenbatekoa: 33.999 euro.

2008. Runa Gestión de Patrimonio Histórico enpresari eginiko adjudikazioa. Zenbatekoa: 35.427,12 euro.

2009. Runa Gestión de Patrimonio Histórico enpresari eginiko adjudikazioa. Zenbatekoa: 35.958,71 euro.

Aztarnategia finkatzea.

– 2007. Andelosko hiri erromatarreko hondarrak finkatzeko proiektuaren idazketa. Zenbatekoa: 14.614,70 euro. Arkeologia Ataleko teknikari arkeologo Jesús Sesma Sesma eta Jesús García Gazólaz jaunek egin zuten, Arista Arquitectos S.L. enpresako Rafael Calderón Alonso eta David Gómez Urrutia arkitektoen laguntza teknikoarekin. Laguntza hori zuzeneko enkargu baten bidez adjudikatu zen.

– 2008. Andelosko hiri erromatarreko hondarrak finkatzeko proiektua exekutatzeko. Zenbatekoa: 338.749,94 euro. Does Albañilería, S.L. enpresak egin zuen, proiektua egin zuten arkitektoen eta Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko teknikari arkeologoaren obra zuzendaritzaren pean. Obrak prozedura negoziatuaren bitartez enkargatu ziren.

– 2008. Andelosko (Mendigorría) hiri erromatarreko hondarren finkatzerako lan osagarri buruzko proiektua idaztea. Zenbatekoa: obraren exekuzioan bertan sarturik dago. Arkeologia Ataleko teknikari arkeologo Jesús Sesma Sesma eta Jesús García Gazólaz jaunek egin zuten, Arista Arquitectos S.L. enpresako Rafael Calderón Alonso eta David Gómez Urrutia arkitektoen laguntza teknikoarekin. Laguntza zuzeneko enkargu baten bidez adjudikatu zen.

– 2008. Andelosko (Mendigorría) hiri erromatarreko hondarren finkatzerako lan osagarri buruzko proiektua exekutatzeko. Zenbatekoa: 86.403,49 euro. Does Albañilería, S.L. enpresak egin zuen, proiektua egin zuten arkitektoen eta Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko teknikari arkeologoaren obra zuzendaritzaren pean. Obrak prozedura negoziatuaren bitartez enkargatu ziren.

– 2008. Argibideetarako panelak diseinatzea. Zenbatekoa: 11.000,00 euro. Gabinete Trama S.L. enpresak egin. Zuzeneko enkarguaz adjudikatu zen.

– 2009. Oinezkoentzako ibilbideetarako argibide-panelak egitea eta haiek jartzea. Zenbatekoa: 15.390,61 euro. Gabinete Trama S.L. enpresak egin zuen. Zuzeneko enkarguaz adjudikatu zen.

– 2009. Aztarnategia ikusteko dorre bat egitea. Zenbatekoa: 5.449,00 euro. Impregna S.A. enpresak egin zuen. Zuzeneko enkarguaz adjudikatu zen.

– 2009. Andelosko hondarren tratamendu begetala. Zenbatekoa: 15.390,61 euro. Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones, S.A. enpresak egin du. Zuzeneko enkarguaz egin da.

– 2009. Ur biltegia eta uharka sendotzeko proiektua idaztea. Zenbatekoa: 11.221,84 euro. Arkeologia Ataleko teknikari arkeologo Jesús Sesma Sesma eta Jesús García Gazólaz jaunek egin zuten, Arista Arquitectos S.L. arkitektura kabinetea Rafael Calderón Alonso eta David Gómez Urrutia arkitektoen laguntzarekin. Zuzenean enkargatu zen.

Marketina eta sustapen turistikoa

2005etik 2009ra

Egindako ekintzak:

– Andelosko hiri erromatarra produktu turistiko eta kultural gisa sustatzea.

Esparrua: Marketin Turistikoko Plan Integrala.

– Ekintzak: Produktua azoketan, aurkezpenetan, prentsa-oharretan, web orrian, buletin elektronikoetan, publizitate ekintzetan egotea.

2009tik aurrera egiteko jarduerak

– 2009. Andelosko aztarnategia Turismoko Zuzendaritza Nagusiari esku-aldatzea, haren kudeaketa turistikoaz arduradain.

Ordutegi-kartel estandarizatuak diseinatzen, prestatzen eta jartzen lan egin da, marka turistikoaren logoarekin: 1.948,8 euro, Otero y Ollo S.L. enpresarekin.

Norabidea erakusten duten seinaleak jarri dira barrenera sartzeko errepidean: 2.288 euro. Enpresa berak egin du.

Ur-biltegiari erregulatzaileari eta uharkari buruzko panelak diseinatu dira, eta egiteko prozesuan daude. Zenbatekoa: 4.500 euro. Lan hori egingen ari den enpresa: Global Servicios Culturales.

Aurreko hiru jardueretan, haien izatea eta zenbatekoa ikusita, zuzenean negoziatu zen jarduera bakoitzean adituak ziren enpresekin.

Liburuxka turistiko bat berriz argitaratu da. 3.000 ale egin dira, 694,84 euroko kostuarekin. Gráficas Biak izan zen hura inprimatzeaz arduratu zen enpresa.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko uztailaren 28an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Andelosko aztarnategi arkeologikoaren musealizazioarako plan zuzendariari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Andelosko aztarnategi arkeologikoaren musealizazioarako plan zuzendariari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 26ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Andelosko Plan Zuzendariarekin lotutako zenbait gairi buruz (PES 208). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Iragan ekainaren 10ean Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean azaldu nuen legez, Andelosko Plan Zuzendaria oinarritzko dokumentu bat da, zenbait lan ildori jarraikiz garatuz joan dena, hala edukiari nola formari dagokienez.

Edukiari dagokionez, han pilatzen diren baliabideen balio nagusiak definitzen dituelako; alegia, aztarnategiaren potentziala definitzen duten diagnosi-karaktereak aztertzen ditu, eta, hortaz, egin beharreko jarduketak ezartzen ditu. Horren harira, interes kulturalerako ondasun deklaratu zen, zien-

tzia- nahiz hezkuntza-interes handiko argitalpenak atera dira aztarnategiari buruz, ongi kontserbatu da eta azpiegitura egokiak egin dira.

Aztarnak, berriz, museo moduan jarrian dira, zabalkunde eta dibulgazio osagaiak jarrita aztarnategiaren eraikinaz gain, hala nola azalpen panelak, seinaleak bisita egiteko gida eta abar.

Formari dagokionez, Andelosko Plan Zuzendaria dokumentu malgu bat da, garatu ahal zenbait alderdi osagarri sartzeari ahalbidetu duena.

Egin beharreko urrats nagusiak definitzen ditu eta jarduketa-segida bat garatzen du, baina ez du ezartzen programa finko bat, gisa horretako toki batean hori baita gomendagarriena; izan ere, azalera handiko tokia da, ikerkuntzara erabat irekia dagoen baliabide bat, ez da hiri lurzorua...

Planaren terminologia bera ez dator guztiz bat Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak gero garatutakoarekin, baina beharrezkoa zela ikusi denean planeko lan ildoak eta kontzeptuak baliatu dira. Halatan, galderan aipatutako zenbait alderdi ez dira garatu plan bereki gisa, ezpada jarduketa programa gisa, eta beste zenbait baztertu dira, aztarnategiaren edo arkeologia esparruaren beraren bilakaeraren araberaz baztertu ere.

Baztertutako proposamenen artean dago hain zuzen ere arkeologiako ikasketen zentro baten sorrera. Proposamen horrek bazuen zentzurik plan zuzendaria idazteko unean –1997an–, unibertsitate planetan arkeologiako ikasketek curriculum-garapen handiagoa izanen zutela uste baitzen.

Gaur egun, Historiaren arloko planetan sartzen diren ikasketa horiek ia guztiz ari dira murrizten, ikasleek ez dutelako halakorik eskatzen; horrenbestez, proposamen horrek ez du batere lehentasunik; turismo produktuen garapenak, aldiz, askoz ere harrera hobea du, eta horien ekarpena handiagoa da lanpostuak sortzeari eta lurraldearen aberastasunari begira.

Kudeaketa dela-eta esan beharra dago ezen, 2003ko apirilaren 30ean Andelosko Arkeologia Museoa ireki zenetik 2005eko abuztura bitarte, D mailako zaindari baten bidez egin zela instalazioen kudeaketa, hura arduratzen baitzen instalazioak irekitzeaz eta mantentze-lanaz. 2005etik aitzina, 207 zenbakiko erantzun idatzian adierazi bezala, enpresa espezializatu bat kontratatu zen: Runa Gestión del Patrimonio Histórico. Hona oinarritzko baldintzak:

- Irekita: ostiral, larunbat, igande eta jaieguneetan. Aste Santuko eta Gabonetako oporretan. Museoen nazioarteko egunean, Andiongo urteko erromesaldian eta Jaialdi Erromatarrean. Udako ordutegi aldakorra: 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Negukoa: 11:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara Igandeetan: 10:00etatik 14:00etara.

- Hitzartutako bisiten zerbitzua, aste bitartean eta ostiraletan (15 €).

- Zerbitzu emaileari kanon bat ordaintzea, kontratuari jarraikiz.

- Sarrerren diru-sarrerak zerbitzu emailearentzat zenbateko jakin batera bitarte (helduak 1 €; 15 pertsonatik gorako taldeak 0,5; eskola-umeak, ikasleak eta erretirodunak, 0,5 €; bizilagunak eta 4 urtera bitarteko haurrak doan). Diru-sarrerren dirua kanona baino handiagoa baldin bada, soberakina banatu egingen da: esleipen-hartzailearentzat % 50, Administrazioarentzat % 25 eta Mendigorriko Udalarentzat % 25.

- Museoaren instalazioen eguneroko garbiketa.

- Zerbitzu orokorren mantentze-lanetarako laguntza (alarmak, hornidura, putzu septikoaren hustuketa, instalazioen konponketa eta abar).

- Aztarnen mantentze-lanak: landaredia garbitu, zaborrak bildu eta osasungarritasuna.

- Administrazioak telefono mugikor bat jarri du zerbitzu emailearen esku, jendeari arreta egiteko eta izan litezkeen gorabeheretarako.

Aztarnategiaren aurkezpenaren eta interpretazioaren alorrean arian-arian lan egin da; jarduketara programa mailakatu bat garatu da, zeinaren lehen helburua izan baitzen Andelosko Museoaren erai-

kina eraikitzea. Eraikina arkeologia aztarnategira sartzeko gune eta kontrol gune izan zedila nahi zen. Maketa tekniko interaktibo handia jarri zen, hiriaren eta inguruen topografia erreproduzitzen duena, Deabruaren zubia-lturrandutzeko presatik Arga ibairaino. Proiektu museografikoa ere idatzi eta bete zen; halatan, edukiz bete zen eraikina, informazio panelak eta indusketetan berreskuratutako materialekiko beira-arasa handi bat jarrita, bai eta beste hedapen nahiz erakusketa baliabide osagarriak ere.

Aztarnategiaren irudiaren diseinua ere egin da, eta egitura arkeologikoak sendotzeko eta babesteko proiektuak idatzi eta bete dira, 2009ko Aste Santutik aitzina egin ahal izan diren bisiten ibilbi-deak eta balio-ematea prestatze aldera.

Andelosko Plan Zuzendariko jarduketak hasi zirenetik, zenbait jarduketa garatu dira Andelosko aztarnategia babesteari eta kontserbatzeari begira. Horien artean, honako hauek ditugu aipagarri:

- Aztarnategiaren itxitura. Kultura zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 634/2001 Ebazpena. Proiektu hori 2002ko lehen hilabeteetan egin zen.

- Ur horniduraren sistema garbitzea eta finkatzea: presaren pantaila eta depositu erregulatzaila. 2001eko kanpaina bideratu zen aztarnategiaren mantentze-lanetik eta kontserbaziotik heldu ziren arazo batzuk konpontzera sistema hidraulikoaren bi puntu nagusitan, Nafarroako Gobernuaren Nekazaritza Azpiegituren Zerbitzuarekin lankidetzan, zeinak sakana drainatzeko proiektu bat prestatu baitzuen.

- Deabruaren zubia-lturrandutzeko presa moldatzea. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariaren maiatzaren 9ko 154/2002 Foru Aginduaren bidez, Nekazaritza Azpiegituren Zerbitzuari agindu zitzaion San Pedroko sakana Deabruaren zubia-lturrandutzeko presako presa erromatarretik igarotzean bideratzeko obraren kudeaketa, Ziraukiko eta Mendigorriko lurtzati berrantolamentuko 2. proiektu osagarriaren baitan.

- 2003an, Luis Navas eta Esther García arkitektoei agindu zitzaion aztarnen kontserbazio egoerari buruzko azterlana egin zezaten.

- 2007an Andelosko hiri erromatarreko aztarnak finkatzeko proiektua idatzi zuten Arkeologia Ataleko teknikari arkeologo Jesús Sesma Sesma eta Jesús García Gazólaz jaunek, Arista Arquitectos S.L. enpresako Rafael Calderón Alonso eta David Gómez Urrutia arkitektoen laguntza teknikoarekin. Proiektua 2008an eta 2009an bete eta

osatu zen, aztarnategian berean eginiko zenbait jarduketarekin.

Ikerkuntza arloari dagokionez, berriz, nabarmendu beharra dago ezen Andelos dela Nafarroako arkeologia aztarnategietan ikerketa jarraipen handiena izan duenetako bat; izan ere, indusketa arkeologikoko kanpaina sistematikoak egin dira, etengabe egin ere, 1980tik aitzina, M^a Ángeles Mezquíriz Irujo andrearen zuzendaritzapean. Guztira, hoguei indusketa kanpaina egin dira. 1988tik aitzina ondokoek osatu dute Indusketen Urteko Plana:

1988.- Otsailaren 22ko 124/1988 Foru Agindua. M^a Ángeles Mezquíriz Irujo.

1989.- Martxoaren 7ko 7/1989 Ebazpena. M^a Ángeles Mezquíriz Irujo eta Mercedes Unzu Urmeneta.

1990.- Apirilaren 4ko 170/1992 Foru Agindua. M^a Ángeles Mezquíriz Irujo.

1991.- Apirilaren 17ko 205/1991 Foru Agindua. M^a Ángeles Mezquíriz Irujo eta Mercedes Unzu Urmeneta.

1992.- Uztailaren 31ko 280/1992 Foru Agindua. M^a Ángeles Mezquíriz Irujo.

1993.- Apirilaren 23ko 108/1993 Foru Agindua. M^a Ángeles Mezquíriz Irujo.

1994.- Apirilaren 15eko 115/1994 Foru Agindua. M^a Ángeles Mezquíriz Irujo.

1995.- Martxoaren 17ko 81/1995 Foru Agindua. M^a Ángeles Mezquíriz Irujo.

1996.- Martxoaren 6ko 95/1996 Foru Agindua. M^a Ángeles Mezquíriz Irujo.

1998.- Apirilaren 23ko 114/1998 Foru Agindua. M^a Ángeles Mezquíriz Irujo.

1999.- Apirilaren 6ko 98/1999 Foru Agindua. M^a Ángeles Mezquíriz Irujo eta M^a Inés Tabar Sarrías,

2000.- Apirilaren 4ko 121/2000 Foru Agindua. M^a Ángeles Mezquíriz Irujo eta M^a Inés Tabar Sarrías.

Lan horiei esker egiaztatu ahal izan denez, hiri erromatarrak hartzen duen tokian Burdin Aroko kultur osagaiekiko egonleku bat egon zen lehena, K.a. IV-III mendeetakoak. K.a. I mendean baziren *opus signinum*eko zoladuraz apaindutako etxeak, baina K.o. I eta II mendeetan lortu zuen hiriak osperik handiena, eta hiriaren garapenarekin batera, hornidura hidraulikoko sistema konplexu bat izan zuen.

2000. urtean eman ziren bukatutzat Andelosko aztarnategiko indusketa lanak.

Urteotan, indusketa lanen osagarri, Andelosko aztarnategiari eskusiboki edo indusketetan berreskuratutako materialen azterketa partzialari dedikatutako argitalpen ugari kaleratu dira.

Une honetan enkargatuta eta bukatuta dago indusketen memoriaren idazketa, Andelosko arkeologia aztarnategiko bisita osatzeko gida-memoria bezala erabil dadin. Horren originala Argitalpen Atalean dago. Maketazio eta diseinu lanak prestatzen ari dira gaur egun, argitaratu aitzin.

Alde turistikotik, eta marketin programari eta turismo- eta kultura- ustiaketarako programari dagokionez, esan beharra dago Nafarroako Gobernua, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren bitartez, "2008-2012 urteetarako Nafarroako Turismo Kulturalako Plana" gauzatzeko ari dela, eta plan horri buruz legebiltzarrean eginiko aurkezpenean jakinarazi genuen bezala, haren bidez gure erkidegoko turismo kulturala indartu eta garatu nahi da, eta gure kultur ondarearen balioa handitu nahi da, halako moduan non ondare hori erabilera turistiko eta kulturalen erantsiko den eta etekin ekonomikoak eta kulturalak sorraraziko dituen. Plan horretan, sartuta dago Andelosko hiri erromatarra.

Planaren estrategia bi ardatzen inguruan egituratuta dago:

- Turismo kulturala garatzeko estrategia, baliabide kulturalak produktu kultural bihurtzera orientatua.

- Turismo kulturalaren marketin estrategia, turismo mota horri merkatuko balioa eman nahi diona, sustapenean inbertsioak eginez.

Bi estrategia horiek, zeinak Produktu Turistikoaren Garapenerako Planean eta Nafarroako Marketin Turistikoaren Plan Integralean sarturik baitaude hurrenez hurren, programa eta ekintza batzuetan zehazten dira. Ekintza horiek azken zehaztapena dira, eta modu zorrotz eta zehatzean definitzen dituzte egin beharreko jarduerak, haien kronograma, aurrekontua eta arduradunak.

Garapenerako strategiaren barruan, 14 programetako bat turismo kulturalako produktu jakin batzuetan zentratuta dago; horien artean "Nafarroa eta Erroma" izenekoak dago. Argi dago programa horrek batera landuko dituela Nafarroan Erromari buruz dauzkagun produktu turistikoak; horien artean, Andelos eta Arellano daude, besteak beste.

Marketineko strategiari dagokionez, Andelos aurreikusitako sei programetan ageri da:

1. Turismo kulturalako kluba eta eskaintzak.
2. Turismo kulturala, orokorrean.
3. Baliabide espezializatuak.
4. Turismo kulturalako agentziak.
5. Interes kulturaletako elkarteak eta erakundeak.
6. Turismo kulturalako kanpainak.

Hori igortzen dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko uztailaren 28an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, enpresa publikoetako plantillari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du enpresa publikoetako plantillari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abuztuaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok galdera hauek egin ditu (PES-2005):

1.- Zenbat pertsona gehiago dago enpresa publikoen plantillan legegintzaldia hasi zenez geroztik?

2. Zenbat kontratu egin zaizkie kanpoko enpresei, plantillak eta langileak hautatzeko azterlanetarako? Zehaztu enpresa horien izenak eta zenbat fakturatu zaien kontzeptu horiek direla eta.

Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

ANAIN

1- Plantilla organikoa ez da hazi 2007tik.

Gaur egun bi hautapen prozesu daude abian.

2- Infojobs bi aldiz (150 euro hautapen-prozesu bakoitzean). Orain: Infojobs enpresa batean eta *head hunter* bat beste batean (Montaner y As.), zeinak urteko soldata gordinaren % 10 fakturatzten baitu.

ANL

1- Gaur egun bost pertsona daude atxikita (lau, 2008an sartu ziren eta bat 2009an), eta pertsona bat aholkularitza-kontratuarekin.

2- Langileak hautatzeko kontratu bat AINekin, 11.367,68 euroren truke, BEZa barne.

BALUARTE

1- Plantilla ez da handitu.

2- Bi azterlan egin dira langile autonomoak identifikatzeko (laguntza puntualak ikuskizunak programatzeko jardueretan): HUMAN enpresak eta AINek egin dute, 900 eta 1.000 euroko kostuarekin (BEZa gabe), hurrenez hurren.

CEIN

1- Plantillaren handitze garbia: 3 pertsona, nahiz eta 2008an beste enpresa publiko batzuetatik heldutako beste 6 pertsona sartu diren.

Langileak 2007ko irailean: 87 / 2008ko urtarrilean: 93 / 2009ko ekainean: 90.

2- 2007ko abendua: departamentuko zuzendari bat hautatzea Human M.S. enpresarekin (4.965 euro).
2008ko urria: ordainsarien politikari buruzko azterlana eta gomendioak Hay Group enpresarekin (14.500 euro).

CNAI

1- Plantilla ez da handitu (44 langile).

2- 2007: "Antolaketari buruzko diagnosis" azterlana. 5.568 euro, BEZa barne. (Delta Consultores).

2008: Ordainketen azterketa. 3.248 euro, BEZa barne. (Human M.S.)

LOS ARCOSKO ZIRKUITUA

Ez du langilerik.

TUTERAKO NEKAZARITZA –ELIKAGAIEN HIRIA

1- Sozietatea ez zen existitzen legegintzaldiaren hasieran. 5 pertsona ditu plantillan.

2- Bat ere ez.

CTPSA

1- Garraioaren Hiriak pertsona bat gutxiago du orain (% 20 gutxiago).

2- Bat ere ez.

ECHAURI FOR

1- Plantilla ez da handitu.

2- Bat ere ez.

FONDO JOVEN EMPRESARIOS

1- Ez du langile berekirik. CEINeko langileak dira enpresaren eginkizunak betetzen dituztenak.

2- Bat ere ez

G.A. VIVEROS

1- Langileen kopurua 2007-12-31n: 121

Langileen kopurua 2008-12-31n: 118

2009. urtean: ez da langilerik sartu, salbu eta ustekabeko jardueretarako, eta halakoetan baimendu egin dira.

2- Bat ere ez. Langileen hautaketa Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez egiten da.

GEDESA

1- Plantilla ez da handitu. Praktikaldiko kontratu bat egin zen 2008ko ekainean (6 hilabete) eta 2007ko irailean bukatu zen beste bat ordeztzen zuen.

2- Hautaketa AINen bitartez egin zen (hautaketa: 2.088 euro, BEZa barne + 1.241,20 euro, BEZa barne, egunkarietako iragarkiengatik)

ICAN

1- 2007-06-30ean: 19 pertsona (17 finko eta 2 aldi baterako).

2007-06-30ean: 27 pertsona (23 finko eta 4 aldi baterako). Langile kopurua handitu da Ardoaren Kontseilu Arau-emaileko 5 pertsonaren eta Nafarroako Aratxearen Kontseilu Arau-emaileko pertsona bat subrogatu direlako eta amatasunarengatik bajak betetzeko aldi baterako 2 kontratu egin direlako.

2- Human M.S.ren zerbitzuak kontratatu ziren administrari bat aldi baterako hartzeko.

ITG AGRÍCOLA

1- ITGAko langile finkoen plantilla ez da aldatu.

2- Bat ere ez

ITG GANADERO

1- Plantillak 8 pertsonatan egin du behera: 2007ko ekainean 92 izatetik (81 finkoak eta 11 aldi baterakoak) 2009ko ekainean 84 izatera (81 finko eta 3 aldi baterako) pasa da.

2- Bat ere ez

MIYABI

1- Plantilla ez da handitu 2007ko ekainetik.

2- Praktiketako ikasleak prestatzeko bekadun bat hautatzea: 2007an Universidad-Sociedad Fundazioarekin (NUP: 520 €) eta, 2008an, bi Empresa Fundazioarekin (NU: 1.232,02€). 2- Langile-bilaketa Infojobs bidez (150€ bakoitza)

NAFINCO

1- Plantilla ez da handitu.

2- Bat ere ez.

NAMAINSA

1- Plantillan pertsona bat gehiago dago.

2- Bat ere ez.

NGA
1- Plantilla 2007tik hona ez da handitu.
2- Bat ere ez.
NASERSA
1- 2007-12-31: 33 kontratu mugagabe eta 22 aldi baterakoak 2008-12-31: 33 kontratu mugagabe eta 23 aldi baterakoak 2009-12-31: 33 kontratu mugagabe eta 21 aldi baterakoak
2- Bat ere ez.
NASUINSA
1- Plantilla ez da handitu.
2- Bat ere ez.
NASURSA
1- Plantilla 2007ko ekainaren 30ean: 17 pertsona. Plantilla, 2009ko ekainaren 30ean: 31 pertsona.
2- Plantilla azterketak (aholkularitza teknikoa eta antolakuntzakoa giza baliabideen arloan, Delta Consultores-ekin: 43.230 € + BEZa) eta langileen hautaketa (hautaketaren zuzendari teknikoa eta OTNko koordinatzaile zientifikoa: 2.380 € + BEZa)
NAVELSA
1- Pertsona bat gehiago (aldi baterako obra-kontratua)
2- Bat ere ez.
NILSA
1- Lau pertsona gehiago plantillan (2007ko uztailaren 1ean 32 pertsona ziren, eta 2009ko egun berean, aldiz, 36).
2- Human Management Systems enpresaren zerbitzuak kontratatu ziren lau pertsona horiek hautatzeko (13.450 €) + prentsan argitaratu ziren iragarkiak (4.875 €)
OPNATEL
1- Lau pertsona gehiago plantillan.
2- Bi kontratu egin ziren Human Management Systems enpresarekin. Bata, 6.003 eurokoa, BEZa barne (2008ko urtarrila), eta bestea 7.046 eurokoa, BEZa barne (2008ko otsaila).
PLANETARIOA
1- Plantilla ez da handitu.
2- Bat ere ez.
POSUSA
1- Plantilla ez da handitu.
2- Bat ere ez.

PIN
1- Plantillan bost pertsona gehiago dira (18 izatetik 23 izatera pasatu dira).
2- Kontratu bat egin zen Human Management Systems enpresarekin, 11.692,80 eurokoa.
RIEG. NAVARRA
1- Plantillan zortzi pertsona gehiago dira (41 izatetik 49 izatera pasatu dira).
2- Langileak hautatzeko bi enpresarekin egin ziren kontratuak: Human M.S.
RIEG. CANAL DE NAVARRA
1- Ez du langilerik eta ez du izan.
2- Bat ere ez.
SALDOSA
1- Plantilla ez da handitu.
2- Bat ere ez.
SALINAS
1- Plantillan lau pertsona gehiago dira (42 izatetik 46 izatera pasatu dira). Batetik, 7 pertsona kontratatu dira eta, bestetik, 3 baja izan dira.
2- Bat ere ez.
SODENA
1- 2007-09-01etik, gorabehera hauek izan ditu: 3 alta (ofizial administrari bat, sustapen zuzendaria eta proiektuen kudeatzailea) eta beste horrenbeste baja.
2- Kontratu bat egin zen Human M.S. enpresarekin, proiektuen kudeatzailea hautatzeko; kontratuaren zenbatekoa 8.352 eurokoa izan zen, BEZa barne.
SPRIN
1- Plantillak bere horretan jarraitu du (5 pertsona).
2- Langileak hautatzeko aholkularitza-kontratu bat egin zen Javier Úriz S.L. enpresarekin; kontratuaren zenbatekoa 800 eurokoa izan zen.
START UP
1- Gaur egun ez du langilerik, eta ez du langile kontratatu berekirik izan, CEINeko langileak baitira eginkizunok egiten dituztenak.
2- Bat ere ez.
TERRITORIO RONCALIA
1- Izan zen pertsona kontratatu bat.
2- Bat ere ez.

TRACASA

1- 2007ko urrian, TRACASAk Gizarte Segurantzari 253 pertsonaren kotizazioa ordaindu zion, eta 2009ko maiatzean 318 pertsonarena.

2- INPUT-OUTPUT Soluciones Informáticas enpresarekin kontratuak egin ziren kualifikazio handiko langileak hautatzeko, 2007an (581,04 €), 2008an (10.292 €) eta 2009an (14.728 €).

TUCKLAND

1- Plantilla ez da handitu.

2- Bat ere ez.

VINSA

1- VINSAn plantillan 12 pertsona gehiago dira: 28 izatetik 40 izatera pasatu dira.

2- Human M.S. enpresarekin lau kontratu egin ziren (29.1250 €) eta VIALOGAR enpresarekin, berriz, bat (2.780,50 €). Langileak hautatzeko enprekin guztira fakturatutako diru kopurua: 31.930,50 €.

Iruñean, 2009ko uztailaren 28an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta
Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, gasolioa erosteagatik nekazariak edo abeltzainek jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa berezia egiteko eskabidea Internet bidez aurkeztu beharrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du gasolioa erosteagatik nekazariak edo abeltzainek jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa berezia egiteko eskabidea Internet bidez aurkeztu beharrari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko uztailaren 4ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abuztuaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du gasolioa erosteagatik nekazariak edo abeltzainek jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa berezia egiteko eskabidea Internet bidez aurkeztu beharrari buruz (PES-209). Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren maiatzaren 4ko 66/2009 Foru Aginduak hirugarren urtez jarraian arautu du gasolioa erosteagatik nekazariak edo abeltzainek jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa. Aurreko bi urteetako foru aginduek –martxoaren 21eko 84/2007 Foru Aginduak eta apirilaren 4ko 68/2008 Foru Aginduak– orobat ezarri zuten bide telematikoa izanen zela itzulketa-eskabide aurkezteko prozedura bakarra. Arlo horretako eskumena duten gainontzeko tributu administrazioek ere –Tributu Administrazioako Estatu Agentziak nahiz Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek– prozedura bakar hori baliatu dute.

Izapidetzea bide telematikoz egin behar izateak ez du esan nahi zergadunak berak egin behar duenik; izan ere, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren ekainaren 2ko 169/2005 Foru Agindua araberak, gizarte laguntzaileek eginkizun hori betetzen jarraitu ahalko dute, itzulketa jasotzeko eskubidea duten nekazarien eta abeltzainen ize-nean. Halatan, Nafarroako Zerga Ogasunaren gizarte laguntzaileen egungo sareak mila pertso-

na baino gehiago ditu, eta horien artean daude erakundeak, elkarteak, sindikatuak, kooperatibak eta zerga-aholkulariak.

2007an, itzulketa mota hori arautu zuen lehen foru agindua argitaratu aurretik, Nafarroako Zerga Ogasuneko teknikariek lan egin zuten sektoreko zenbait bitartekariarekin (kooperatibekin, sindikatu-ekin eta sektorearekin lotutako finantza-erakunde-ekin), jarduera mota horietan erabili ohi diren ibilgailuen eta tresnen tipologia ezagutze aldera eta gasolioaren kontsumoaren eragikera (banatzaile motak, fakturak jaulkitzeko aldizkakotasuna...) ezagutze aldera, bai eta elkarte- nahiz sindikate-tasa egiaztatze ere.

Horrek guztiak balio izan zuen, batetik, betebeharrak formal horren konplimendua eta eskatutako zenbatekoen administrazio-kontrol logikoa erkatze-ko, eta, bestetik, zenbait aplikazio informatiko garatzeko, halako moduz non zergadun horien aholkulariei (batez ere kooperatibei) bide emanen baitzitzaizen bere bezeroen kontabilitate nahiz zerga arloko informazioa modu erosoan lortzeko eta itzulketa-eskabidean jaso beharreko datuak emateko.

Egiaztatu zenez, nekazarien eta abeltzainen sektorean oso handia da haien eskubideez arduratu eta haien betekizun formalak betetzen laguntzen dien erakunde bateko parte-hartzea. Hortaz, bitartekariak identifikatu ziren, eta horrek bide eman zuen bide telematikoa soilik baliatzeko betekizuna taxuz betetzea, zergadunentzat gehiago baitira abantailak eragozpenak baino.

Hartara, eskabideak aurkezteko bide horrek ahalbidetzen du betekizunaren konplimendua normalizatzea, akatsak ekiditea eta informazioa atzerapenik gabe baliatzea. Eta kostua murrizten da hartara; izan ere, datuak ez direnez eskuz grabatu behar, Administrazioa eraginkorragoa eta efizientegoa da bitartekoak esleitzean, eta zergadunari azkarrago eta hobeki egiaztatua itzul dakioke eskatutako zenbatekoa.

Praktikan, arazo aipagarririk gabe aurkezten da eskabideen % 98 bitartekarien eta laguntzaileen bitartez; bitartekari eta laguntzaile horiek, eskabideak aurkezteaz gain, aitortpena ere betetzen dute, kasurik gehienetan haiek dutelako informazioa.

Ondoko taulan ageri dira eskatutako itzulketei buruzko zenbait datu.

URTEA	Aurkeztutakoak	Laguntzaileek	Norberak
2007	3.890	3.840 (% 98,71)	50
2008	4.156	4.094 (% 98,5)	62
2009 (epea itxi aitzin)	1.812	1.779 (% 98,17)	33

Alegia, aurkezpena bide telematiko bidez nahitaez egiteko sistema normaltasun osoz baliatu da; horretara ohituta dauden laguntzaileek eta bitartekariak egin dute ia beti, eta abantailak nabarmenak dira eskuzko sistemaren aldean, bai zergaduentzat bai Administrazioarentzat.

Gogorarazi beharra dago bukatzeko ezen Zer-

gadunari Laguntza eta Argibideak emateko Zerbitzua herritarren esanetara dagoela tributu arloko edozein informazio edo laguntza emateko.

Iruñean, 2009ko abuztuaren 12an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETAL PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Tuterako Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

Txosten exekutiboa edo laburpena (xx. or.).

- I. Sarrera (19. or.).
- II. Helburua (20. or.).
- III. Norainokoa (21. or.).
- IV. Iritzia (21. or.).
 - IV.1. Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorra (21. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (22. or.).
 - IV.3. 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoera (22. or.).
 - IV.4. Comptos Ganberak aurreko txostentan emandako gomendioen betetzea (22. or.).
- V. 2007ko kontu orokor bateratuaren laburpena (23. or.).
 - V.1. Aurrekontuaren betetze-maila (23. or.).
 - V.2. Aurrekontu-emaizta (24. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria (24. or.).
 - V.4. Egoera-balantzea (25. or.).

VI. Iruzkina, ondorioztapenak eta gomendioak (26. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (26. or.).

VI.2. Administrazio-kontratazioa (26. or.).

VI.3. Gorabeherak (27. or.).

VI.4. Hirigintza (27. or.).

VI.5. Erakunde autonomoa: Castel-Ruiz Kultur-gunea (27. or.).

Eranskina: 2007ko finantzen egoera-orri bateratuak.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorteko bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

www.cfnavarra.es/camara.comptos

TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENEA.

Comptos Ganberak Tuterako Udalaren 2007ko ekitaldiari buruzko fiskalizazioa egin du. Tuterak 32.760 biztanle ditu.

Tuterako Udalak bi erakunde autonomo ditu: Uren Udal Batzarra eta Castel-Ruiz Kultur-gunea.

Udalaren 2007ko kontu orokorrak alderdi esanguratsu guztietan bere gastu eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioaren eta egoera ekonomiko eta ondarezkoaren irudi leiala adierazten du, salbuespen batekin: funtzionarioen pentsio-sistema berekitik datozen gastuak ez dira kuantifikatu.

Legezketasun-analisiari dagokionez, adierazten da ezen udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa araudi indarduna errespetatuz gauzatu dela.

2007an, udalak 44,42 milioi euro gastatu eta 51,28 milioi euroko diru-sarrerak izan zituen. Kopuru horietan sartuta daude aipaturiko erakunde autonomoei dagozkienak.

Gastuetan, nabarmentzekoak dira ondasun arrunt eta zerbitzuetan eginikoak (14,27 milioi euro), langileria-gastuak (14,02 milioi) eta inbertsioei dagozkien 12,33 milioi euro.

Dirusarrerei dagokienez, transferentzia arruntak 12,51 milioi eurokoak izan dira; kopuru hori zergen bidez bildutako kopuruaren antzekoa da. Beste 12 milioi euro dira hazitarako abereen eraikina kultur etxe bihurtzeko eraldaketa-obra finantzatzeko aldera Nafarroako Gobernuak emandako mailegutik etorriak.

Datu bateratuen arabera, udalaren aurrekontu-emaiza doituia 3,69 milioi euroko superabita izan da, eta epe luzera 25,34 milioi euroko zorra dauka.

Txostenean gomendatzen da aurrekontuetako inbertsio-kopuruak egokitzea egiazki dagoen kudeaketa-ahalmenera.

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraituz, Comptos Ganberak Tuterako Udalaren eta haren erakunde autonomoen –Uren Udal Batzarra eta Castel-Ruiz Kulturgunea– 2007ko Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du.

Tuterako Udalak 215,68 km²-ko azalera du. 2007ko urtarrilaren 1ean 32.760 biztanle zituen, eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2007ko abenduaren 31n:

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2007-12-31n
Udala	40.664.453,83	47.544.079,93	260
Uren Udal Batzarra	3.129.857,94	3.033.743,13	27
Castel-Ruiz Kulturgunea	4.034.111,83	4.110.043,68	26
BATERATZEAREN DOITZEAK	-3.407.897,79	-3.407.897,79	-
Bateratua, guztira	44.420.525,81	51.279.968,95	313

Udalak ondoko mankomunitate eta partzuergo-etan hartzen du parte:

- Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea, zaborrak biltzeko zerbitzua ematen duena, eraikinak zaharberitzeko bulegoa eta txakurtegia.
- UHUNen Tuterako ikastetxe elkartuaren partzuergoa
- Tarazonicaren Bide Berdearen partzuergoa.
- Nafarroako Erribera garatzeko estrategietarako partzuergoa (EDER).

Tuterako Udalari ekitaldian zehar aplikatzekoa izan zaion araubide juridikoa, funtsean, hau izan da:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duena.

- Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legea.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Tuterako Udalaren betetze-oinarriak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainakoa, eta laugarrenean, kontu orokorrari, legezkatasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugu iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean jaso dugu finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat, eta, seigarren eta azkenean, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta –kontrola hobetzeko egokitzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Halaber, eranskin batean sartu da udalak 2007ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Tuterako Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tuterako Udalaren 2007ko ekitaldiko Kontu Orokorren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Tuterako Udalaren 2007ko Kontu Orokorrek fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Tuterako Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen jarduerari aplikagarri zaion legedia zer neurritan betetzen den 2007an.

c) Tuterako Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2006ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Tuterako Udalaren eta haren erakunde autonomoen (Castel Ruiz kultur-gunearen eta Uren Udal Batzarraren) finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du. Fiskalizazio horren barruan elementu hauek daude:

a) Toki-entitatearen kontua, bai eta haren erakunde autonomoena ere.

b) Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua eta zorraren egoera-orria.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza eta Udalaren eta bere erakunde autonomoen diruzaintza-gerakina.

- Udalaren eta bere erakunde autonomoen egoera-balantzea.

- Udalaren eta bere erakunde autonomoen galera eta irabazien kontua.

- Udalaren eta bere erakunde autonomoen kontu bateratuak.

Udalak eta haren erakunde autonomoek aplikaturiko kontabilitate-araubidea 272/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako kontabilitate-instrukzio orokorrean zehaztuta dago.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuako Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta bere erakunde autonomoiei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoerorien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarriko prozedura administratiiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitatea eta barne-kontrolako alderdi nabarmenenak.

Txosten honetan daude udalaren eta bere entitateen antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko komenigarritzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Tuterako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2007ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren prestatzea eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

IV.1. UDALAREN 2007ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

Kontu orokorrak ez du jasotzen funtzionarioen pentsio-sistema berekitik eratorritako betebeharrak aktuariaren kuantifikazioa.

Aipaturiko salbuespenarengatik izan ezik, udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta arauei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2007an udalaren eta bere erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun-printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. 2007ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA.

Behin betiko aurrekontu bateratua 88.700.043 eurokoa da (81.913.978 euro, aurreko ekitaldian); gauzatutako gastuaren zenbatekoa, 44.420.526 eurokoa (37.110.145 euro, 2006ko ekitaldian); eta dirusarrerena, 51.279.969 eurokoa (36.155.436 euro, 2006an).

Azpitarratzekoa da gastuen betetze-maila apala (ehuneko 50), bai eta dirusarrerena ere (ehuneko 58). 2006ko ekitaldian, betetze-maila horiek ehuneko 45koa eta ehuneko 44koa izan ziren, hurrenez hurren. Horren arrazoia, funtsean, inbertsioen betetze txikia izan da, aurreko urtean bezalaxe.

2007ko ekitaldian transferentziek udalaren dirusarreraren ehuneko 30 egin dute, zerga eta tasek ehuneko 42, eta mailegu berriek, ehuneko 23. Zerga zuzenetan, ehuneko 86 betetzen da; zeharkakoetan, ehuneko 166. Bestalde, transfe-

rentzia arrunten ehuneko 81 bete da, eta kapital-transferentzien ehuneko 41.

Ekitaldia ixtean, aurrekontu-emaitza doitua eta bateratua 3.692.169 eurokoa izan zen (2.751.049 euroko superabita 2006an).

Ekitaldi honetan, zorpetzea 25.343.162 eurokoa izan da; aurreko ekitaldikoa, berriz, 14.602.328 eurokoa izan zen. Nafarroako Gobernuaren 12.000.000 euroko mailegu bat jaso da, eraikin bat kultur etxe bihurtzeko birmoldaketan lanetarako. Gainera, 37,9 milioi euro egiten duten maileguak hitzartzeko daude.

Ekitaldia ixtean, finantza-egoeraren ezaugarriak hauexek ziren: ehuneko 4,3ko zorpetze-maila eta ehuneko 15,4ko zorpetze-muga. Aurrezki garbia diru-sarrera arrunten ehuneko 11koa da, eta 3.948.311 euro egiten du.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin bateratuak zenbateko negatiboa dauka, 9.346.817 eurokoa (2.829.564 euroko negatiboa 2006ko ekitaldian); Udalarena 10.503.602 euroko negatiboa izan da, eta erakunde autonomoenak positiboak izan dira.

IV.4. COMPTOS GANBERAK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Ganbera honek aurretik egin zuen txostenari dagokionez, ohartarazten dugu oraindik ere bete gabe dirauela honako gomendio honek:

Aurrekontuan inbertsioetarako jasotzen diren zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealetara doitu eta hurbiltzea, kreditu-gerakinetako saldo handiak hurrengo ekitaldietako aurrekontuetara ez gehitze-arren.

V. 2007ko KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA**V.1. AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA**

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak Gora/Beh.	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Ordainketa kitatuak	Egiteko dauden ordainketak	Betetakoa (%)	Aitorturiko guztiaren gaineko %
Langile-gastuak	1	15.670.524	-35.967	15.634.557	14.089.723	13.874.966	214.757	90,12	31,72
Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	2	16.705.004	639.035	17.344.039	14.270.333	11.501.789	2.768.544	82,28	32,13
Finantza-gastuak	3	812.297	-464.314	347.983	293.075	263.574	29.501	84,22	0,66
Transferentzia arruntak	4	2.082.451	82.125	2.164.576	1.865.226	1.282.541	582.686	86,17	4,20
Inbertsio errealak	6	25.456.994	25.347.239	50.804.233	12.331.140	7.558.993	4.772.146	24,27	27,76
Kapital-transferentziak	7	950.000	125.000	1.075.000	311.864	238.889	72.975	29,01	0,70
Aktibo finantzarioak	8	0	0	0	0	0	0	0,00	0,00
Pasibo finantzarioak	9	1.270.969	58.686	1.329.655	1.259.165	1.158.875	100.290	94,70	2,83
Gastuak, guztira		62.948.239	25.751.805	88.700.043	44.420.526	35.879.628	8.540.898	50,08	100,00

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak Gora/Beh.	Hasierako behin betikoa	Eskubide aitortua	Saila Dirubilketa likidatua	Kobratzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitorturiko guztiaren gaineko %
Zuzeneko zergak	1	9.762.650	0	9.762.650	8.428.646	7.853.872	9.762.650	86,34	16,44
Zeharkako zergak	2	2.500.000	0	2.500.000	4.159.294	2.768.209	2.500.000	166,37	8,11
Tasak eta beste diru-	3	7.977.981	81.000	8.058.981	8.706.111	7.513.775	7.977.981	108,03	16,98
Transferentzia arruntak	4	15.109.649	323.566	15.433.215	12.505.552	11.319.684	15.109.649	81,03	24,39
Ondareko diru-sarrerak	5	1.871.200	0	1.871.200	1.926.230	1.833.642	1.871.200	102,94	3,76
Inbertsio errealak	6	3.600.600	0	3.600.600	629.502	629.502	3.600.600	17,48	1,23
Kapital-transferentziak	7	2.952.190	4.163.745	7.115.935	2.924.634	2.166.485	2.952.190	41,10	5,70
Aktibo finantzarioak	8	0	-11540.124	-11.540.124	0	0	0	0,00	0,00
Pasibo finantzarioak	9	19.173.969	32.723.619	51.897.588	12.000.000	12.000.000	19.173.969	23,12	23,40
Diru-sarrerak, guztira		62.948.239	25.751.805	88.700.043	51.279.969	46.085.170	62.948.239	57,81	100,00

V.2. AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2006ko ekitaldia	2007ko ekitaldia
	36.155.435,86	51.279.968,95
	37.110.145,34	44.420.525,81
	-954.709,48	6.859.443,14
ren desbideraketa positiboak	873.109,10	12.876.086,06
	11.766.482,06	21.061.238,87
-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	-7.187.616,70	-11.352.427,42
	2.751.046,78	3.692.168,53

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2006ko ekitaldia	2007ko ekitaldia	Aldea, %
(+) KOBRAZKEKO DAUDEN ESKUBIDEAK	4.129.395,84	7.173.060,14	73,7
(+) Diru-sarrerren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	4.283.799,46	5.194.799,19	21,3
(+) Diru-sarrerren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	2.075.529,89	2.576.252,54	24,1
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	409.265,29	1.877.948,81	358,9
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-423.727,63	-61.627,52	-85,5
(-) Dirubilketa zaileko eskubideak	-2.215.471,17	-2.414.312,88	9,0
(-) ORDAINTZEKO DAUDEN BETEBEHARRAK	8.014.804,30	13.011.137,18	62,3
(+) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	5.667.928,71	8.538.405,72	50,6
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.178.118,34	1.931.998,63	64,0
(+) Dirusarrerren aurrek.	13.463,06	1.223.861,88	9,0
(+) Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	226.166,59	267.384,66	18,2
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	992.780,45	1.074.409,14	8,2
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	-63.652,85	-24.922,85	-60,8
(+) Diruzaintzako funts likidoak	4.121.608,71	12.364.512,77	200,0
(+) FINANTZIAZIO DESBIDERAKETA NEGATIBO METATUAK			
= DIRUZAINZAKO GERAKINA, GUZTIRA	236.200,25	6.526.435,73	2.663,1
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintza-gerakina	253.146,30	253.146,30	0,0
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	2.812.618,21	15.620.106,39	455,4
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-2.829.564,26	-9.346.816,96	230,3

V.4. EGOERA-BALANTZEA

(euroak, milakotan)

AKTIBOA		2007	PASIBOA		2007
A	IBILGETUA	117.517	A	FUNTS BEREKIAK	95.780
1	Ibilgetu materiala	94.097	1	Ondarea eta erreserbak	45.758
2	Ibilgetu ez-materiala	29	2	Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	2.562
3	Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	5.924	3	Kapital-dirulaguntzak	47.460
4	Herri ondasunak	17.461	B	ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	2.414
5	Ibilgetu finantzarioa	6	4	Hornidurak	2.414
B	ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	0	C	EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	26.099
6	GASTU AMORTIZAGARRIAK	0	4	Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	26.099
C	ZIRKULATZAILEA	22.148	D	EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	15.372
7	Izakinak	110	5	Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	13.036
8	Zordunak	9.649	6	Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	2.336
	Aplikatzeko dauden kontusailak	25			
9	Kontu finantzarioak	12.364			
10	Finantzaketa-egoera iragankorrak.Aldizkatzearen	0			
11	Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0			
	AKTIBOA, GUZTIRA	139.665		PASIBOA, GUZTIRA	139.665

VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azalduko ditugu, kudeaketa-arlorik garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganberaren iritziz udalak bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko jarraitu beharko lituzkeen gomendio nagusiak.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontuak legez ezarritako epean onestea.*
- *Aurrekontuan inbertsioetarako jasotzen diren zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealetara doitu eta hurbiltzea, kreditu-gerakinetak saldo handiak*

hurrengo ekitaldietako aurrekontuetara ez gehitze-arren.

- *Derrigorrezko diru-bilketako kontuak diru-zaintzako egoera-orrietan eta egoera-balantzean sartzea.*

- *Udalak eman beharreko dirulaguntzen oinarrietan ezarritako baldintzak zorrotz aplikatzea.*

VI.2. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

Atal honetan bi arlo bereizi behar dira: batetik, zerbitzu-ematearen, horniduren eta erosketen kudeaketari dagozkion alderdiak, eta bestetik, inbertsioak.

VI.2.1. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan

Espedienteen lagin hau egiaztatu dugu:

	Kontratu mota	Prozedura/Esleipen-irizpidea	Esleipenaren zenbatekoa
Tuterako Udalaren ardurapeko eraikinen garbiketaren kontratazioa, 2007tik 2010era bitarteko eperako.	Laguntzarako kontratua	Irekia, eskaintza onenarentzat	4.329.769,60
Tuterako Udalaren ardurapeko berdeguneen, parkeen, lorategi eta zuhaitzien mantentze-lana eta kontserbazioa	Laguntzarako kontratua	Irekia, eskaintza onenarentzat	4.220.919,90
Aparkaldi mugatuko zerbitzuaren emakida	Emakida	Irekia, eskaintza onenarentzat	1.325.184,00

Eginiko berrikuspenetik ondorioztatzen da udalak oro har errespetatu egiten duela kontratazio-araudia.

Gainera, arlo honetako kontusail nagusietako gastuen lagin batean, egiaztatu dugu gastu bako-

tzak bere faktura duela, eta behar bezala kontabilitzatuta dagoela.

VI.2.2. Inbertsioak

Espedienteen lagin hau egiaztatu dugu:

	Kontratu mota	Prozedura/Esleipen-irizpidea	Esleipenaren zenbatekoa
San Salvador plazan, Yeseros, Cofrete, San Juan eta aldamenekoetan zoladura eta homidura-sareak berritzeko lanak.	Obrak	Irekia/prezioa	1.192.011,65
Tuterako Lourdes ikastetxean kokaturiko lehen zikloko Haur Hezkuntzako ikastetxea eraberritzea eta araudira egokitzea	Obrak	Irekia/prezioa	740.740,77
Mistoa, Santa Quiteria futbol-zelaian belar artifiziala jarri eta harmailak eta aparkalekua eraikitzeke birmoldaketa-obren proiektua prestatzea eta obra horiek egitea.	Obrak	Irekia, eskaintza onenarentzat	1.257.596,00
Lourdes gizarte-etxerako ekipamenduaren homidura eta instalazioa	Homidura	Irekia, eskaintza onenarentzat	87.443,77
Argiteria publikorako ekipo egonkortzaile erreduktoreen homidura, muntaia eta martxan jartzea.	Homidura	Irekia, eskaintza onenarentzat	422.187,09

Aztertutako laginetik ondorioztatzen da hobetu beharreko honako puntu hauek daudela:

- *2007ko ekitaldian ez da aldaketarik izan "Mejanako mendebaldeko bidea zolatzeko lanak" espedientearen egoeran; ez dago behin-behineko harrera-aktarik eta ez da batere gasturik kontabilizatu obra hori dela-eta; izan ere, ekonomia-alorrean ez da sartu kontzeptu horri dagokion fakturarik. Hala ere, 2008an epai bat eman da, udala zigortzen duena 61.458 euro ordaintzera. Betebehar hori 2009ko ekitaldian erregistratuko da.*

- *"Argiteria publikorako ekipo egonkortzaile erreduktoreen hornidura, muntaia eta martxan jartzea" kontratatzeke lizitazioari ekin zaio, baina espedientearen ez da frogatu udalaz kanpotiko ekarpenetako bat guztiz eskuragarri dagoenik halakorik finantzatzeko. Horrelaxe ohartarazi zuen Kontu-hartzailetzaren txostenak.*

Ondorioz, udalak, oro har, kontratazio-araudia errespetatzen du.

VI.3. GORABEHERAK

2008ko maiatzean 46 auzi ebatzi gabe zeuden, jurisdikzio-istantzia ezberdinetan, eta auzi horietako batzuk ezin dira ekonomikoki zenbatetsi prozesu-une honetan.

Hirilurraren gaineko kontribuzioaren 2005eko lehen seihilekoari dagozkion kuoten 1.180.000 euroren itzulketa erregistratu da, 2006ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenean jadanik aipaturiko auziaren ondoriozkoa.

VI.4. HIRIGINTZA

2006ko ekitaldian, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren prestaketa esleitu zen, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritakoari egokitze aldera.

2007an hasierako onespina eman zitzaion

"Lurraldea okupatzeko estrategia eta eredu" izeneko dokumentuari, zeina udaleko hirigintza-planaren aurretikoa baita.

Udalak ez du hirigintzako hitzarmenen erregistro, ez eta udalaren lurzoru-ondarearen inbentario espezifikorik ere Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legea betetzeko, baina ikusi dugu udalaren lurzoru-ondaretik datozen diru-sarrera atxikien jarraipena egiten dela.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa sortzea, indarrean dagoen legeriak eskatzen duen dokumentazioa duela.*

- *Udalaren lurzoru-ondarea udalaren gaineko ondasunetatik bereizita eratzeko eta kudeatzeko, kontuan harturik Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen helburuei lotuta dagoela.*

VI.5. ERAKUNDE AUTONOMOA: CASTELRUIZ KULTURGUNEA

Ikuskatutako kontratazio-espedientei dagokienez, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, kontratazio-araudia errespetatzen dela.

Eginiko ikuskapenaz gain, honako gomendio hau jaso nahi dugu:

- *Prozedura bat ezartzea, eskudirutan kobratzen diren kopuruak aldizka kontuan sartzeko, era horretan eskudiru-kutzako saldoak murrizten saiatzeko.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

